

EUSKO JAURLARITZAKO HITZARMENA

Gure etorkizuna
jokoan dago!

Guztion ardura da!



ELAren Inkesta: 2012.eko Negoziazio Kolektiboa

Abenduaren 31n amaituko da Eusko Jaurlaritzarekin izenpeturiko lan-akordioaren indarraldia. Esan beharrekoa da, bide batez, gobernuak akordioa bete gabe utzi duela, eta guk egindako mobilizazioak ez direla nahikoak izan ez-betetze horiek zuzentzeko. Beraz, azkenaldi honetan arlo publikoari, oro har, egindako erasoak eta, bereziki, soldatei eta plantillei egindako murrizketak etengabeak direnez, zure partaidetza ezinbestekoa da.

Inkesta honen asmoa gairik garrantzitsuenak jaso eta 2012ko Hitzarmen Kolektiboaren Negoziazio Mahaira eramatea da. Horretarako, zure iritzia ezagutu nahi dugu. Inguratu biribil batez nahiago duzun aukera.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

A) Adierazi zein den zure lan-egoera:

- Karrera-funtzionarioa.
- Bitarteko funtzionarioa.
- Lan-legepeko kontratuduna.
- Lan-legepeko langile finkoa.
- Bestelako egoera.

B) Zein da zure taldea?

Sarrera labur bat, galdera-sorta betetzen hasi baino lehen.

Eusko Jaurlaritzako langileoi %10eraino murriztu dizkigute soldatak: 2010ean eta 2011n (murrizketak, itundutako igoserak baina gauzatu gabeak, eta Itzarri). Adibideak:

| GRUPO o NIVEL | Robos 2010 y 2011 | TOTAL |
|---------------------|-------------------|----------|
| Grupo A1 / nivel 30 | 2.709 € + 7.316 € | 10.025 € |
| Grupo A1/ nivel 22 | 1.309 € + 3.712 € | 5.021 € |
| Grupo C2 / nivel 16 | 569 € + 1.954 € | 2.523 € |

Urteak daramatzagu eros-ahalmenaren mailatik beherako igoerekin.

Gure lan-baldintzak eta gure soldatak ez dira krisiaren errudunak. Murrizketak ez dira baliagarriak izan krisitik ateratzeko; alderantziz, kontsumoa gutxitu da, eta langabezia ugaldu.

"Ostu" digutena ez da izan okerren daudenei laguntzeko, errenta altuetakoei emateko baizik.

Euskadiko zerga-presioa 10 puntu txikiagoa da, Europako batez bestekoa baino. 10 puntu horiek 6.400 milioi euroren parekoak dira, eta dirutza hori errenta altuetakoei ematen zaien oparia da.

Euskadiko gizarte-gastua 8 puntu txikiagoa da, Europako batez bestekoa baino. 8 puntu horiek 5.200 milioi euro dira, gastatu gabe geratzen direnak (gure soldatak gizarte-gastu horren zati bat dira).

A) SOLDATAK

Soldatak igotzea aberastasuna hobeto banatzea da, familien gastu-ahalmena handitzea da... krisitik ateratzeko lehen pausoa ematea da.

1) Zure ustez soldata izan behar da negoziazioaren atal garrantzitsua?

BAI EZ

2) Orain arte murrizturiko soldata eskatu beharko genuke negoziazioan?

BAI EZ

B) LANALDIA ETA BAIMENAK

Iaztik aurrera zuetako askok lanaldi jarraitua izan duzue astean 3 egunetan. Eta horregatik zerbitzuaren kalitatea ez da kaltetu. Familia eta lana uztartzea garrantzi handiko gaia da, baina administrazio honentzat gaintitu gabeko asignatura da.

3) Negoziazioan lanaldi jarraitua eskatzea funtsezkoa al da zuretzat, orain dauden bi lanaldi-motak kendu barik (lanaldi etena eta mistoa)?

BAI EZ

4) Familia eta lana uztartzearen, ados al zaude sarrera- eta irteera-malgutasuna areagotzearekin?

BAI EZ

5) Zure oraingo postuaren eginkizunak ba al dago betetzerik telelanaren bidez, eta interesatzen al zaitzu?

BAI EZ

6) Oraingo hitzarmenaren arabera, egunean gehienez berreskuratu daitekeen denbora 1h 15' da. Ados al zaude tarte hori luzatzearekin?

BAI EZ

C) PRESTAKUNTZA

7) Oraingo akordioaren arabera, urtean gutxienez 40 ordu bermatzen zaio langile bakoitzari. Azken urtean ikastaroren bat ukatu al dizute, dagozkizun 40 orduak agortu gabe izan ez arren?

BAI EZ

D) POSTU-AMORTIZAZIOAK ETA LEKUALDATZEAK

Krisia ez da bukatuko lanpostuak suntsituz. Lan egitea duenak bakarrik izan dezake bizimodu duina.

Hala ere, administrazioak, murrizketa-politika ganorabako bati jarraituz, lanpostuak amortizatzen ditu, eta arrazoi desberdinengatik gertatzen diren laneratze hutsak ez ditu ordeztan. Horren ondorioz:

- . lan-kargak handitu dira,
- . zerbitzuaren kalitatea kaltetu,
- . jarduera horiek kanpora ateratzeko ustezko beharrezana azpimarratu.
- . Lagile gutxiago eta langabetu gehiago.

8) Ez badago aurretiaz eginda arrazoi bidezko azterlanik, utziko al diegu plazak amortizatzen?

BAI EZ

9) Aldi baterako ordeztuaren kontuan, irizpide ekonomikoari baino, zerbitzuaren beharrezan irizpideari begiratzeko eskatu behar diegu?

BAI EZ

10) Langileen nahitaezko lekualdatzeak adostu beharko lirateke, zure iritziz, langileekin berekin eta sindikatuekin?

BAI EZ

E) BITARTEKO LANGILEAK

Administrazio honek ez ditu bere konpromisoak bete, eta urteak badira bitarteko langileen tasa oso handia izaten dela. Kontratazio-politsei buruzko arauak hobetzeko modukoak dira.

11) Zure ustez kontratua hobetzeko klausula sartu beharko litzateke; hau da, postu hutsak poltsen hurrenkerari jarraiki eskaini behar izatea, nahiz eta deitutako langilea tarte horretan lanean ari beste kontratu baten bidez?

BAI EZ

12) Hitzarmen bidez behartu behar dugu Administrazioa Enplegu Publikoaren Eskaintza aldiro ateratzera?

BAI EZ

13) Baietz erantzutekotan, zein maiztasun izango zen egokiena?

- a) Urtean behin.
- b) 2 urterik behin.
- c) 3 urterik behin.
- d) beste bat.

F) EUSKARA

14) Gehiago sustatu beharko litzateke euskararen erabilera administrazioan?

BAI EZ

15) Langileei erraztasun handiagoak eman beharko litzaieke lanaldiaren barruan euskara ikasteko?

BAI EZ

G) LAN-LEGEPEKO LANGILEENTZAKO LANPOSTUEN ZERRENDA (laboralentsat bakarrik)

16) Arestian hasi dira laboralen lanpostuak balioesten. Oro har, ados al zaude egiten ari den moduarekin?

BAI EZ

17) Inkesta betetzeko behar izan duzun informazioa eta laguntza eskuragarri izan al duzu?

BAI EZ

18) Egiten ari diren balioespenak ez baditu betetzen, moduan eta edukian, pizturiko itxaropenak; prest al zaude mobilizatzeko Gobernuaren premiatzarren?

BAI EZ

H) MOBILIZAZIOAK

Gure administrazioetako politikariek merkatuei men egitea erabaki dute, arlo publikoari bizkarra emanez, eta langileen eskubideak orain dela gutxi arte pentsaezina zen moduan murriztuz. Ez diete batere begiramenik justizia eta ekitate printzipioei.

Gizarte-elkarrizketaz baliatzen dira politika neoliberaleri babesa emateko.

19) Beharrezkoa al da langileak mobilizatzea, hobekuntzak lortze aldera?

BAI EZ

20) Baietz erantzutekotan, gertu zeundeke artez parte hartzeko?

BAI EZ

21) Era berean, baiezeko erantzunaren kasuan, ze-nolako mobilizazioak izango lirateke egokienak?

BAI EZ

. elkarretaratzeak

lan-orduetan

BAI EZ

. elkarretaratzeak

lan-orduetatik kanpo

BAI EZ

. ordukako lanuzteak

BAI EZ

. egun osoko lanuzteak

BAI EZ

. greba mugagabea

BAI EZ

. bestelakoak (adierazi egokitzen dituzunak)

I) ZURE USTEZ ZEIN PUNTU GEHIAGO SARTU BEHARKO LITZATEKE PLATAFORMAN?

